

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2018ko otsailaren 27ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– Erabakiak:

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 89/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Arabako udalei 2018rako itundu gabeko zergetan duten partaidetza ordaintzeko prozedura.

Foru Gobernu Kontseiluaren 90/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Ribera Bajako Udalak bere izena Erriberabeitia izenarengatik aldatzeko abiarazitako espedientearen aldeko txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 91/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Bilarko Udalak udal bandera ofiziala legeztatzeko abiarazitako espedientearen aldeko txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 92/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Espejoko SISEU-aren eraikina handitzeko obrak 423.484,37 euroan, BEZa barne, eta 26 astean egitea prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 93/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Arabako Suhiltzaileak-Bomberos de Álava erakunde autonomoaren (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) lanpostu zerrenda.

Foru Gobernu Kontseiluaren 94/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onestea prozedura ireki bidezko kontratazio espedientea, 145.200,00 eurokoa (BEZa barne), "Ardoari loturiko ekonomia-aren azterketa eta garapena. Arabako Errioxaren jarrera, lurraldeko gizarte eta ekonomia-aren garapenerako eragile gisa" izeneko azterlana egiteko, gauzatzeko 15 asteko epearekin.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMIISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 95/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. 2018rako Proiektu Informatikoen Plana onestea eta finantzatzea.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 96/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Esleitzea "TRACASA-TCA ALAVA 2018" ABEEri, 2.995.080,00 euroan (BEZa eta gainerako zergak barne), 2018ko apirilaren 1etik aurrera bi urtez Arabako Lurralde Historikoan Ondasun Higiezinaren Katastroa beti eguneratuta izateko beharrezkoak diren lanak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 97/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzuak eragozpenen zenbait jardun jakinarazi baliozkotu izana.

Foru Gobernu Kontseiluaren 98/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskatuta, 4/2018 konpromiso kredituaren transferentziaren espedientea (120.000,00 euro), Mugarri Planaren harira Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntza lerro bat onartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 99/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea doan lagatzea Arabako Foru Elkarkidegoari Arabako Foru Aldundiak Probintzia plazako 14an duen lokal bat.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 100/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Orza Gestión y Tenencia de Patrimonios AIE enpresari adinekoentzako Lakua Egoitza alokatzeagatik ordaindu beharreko hileko errentaren zenbatekoa eguneratzea.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 101/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea abenduaren 29ko 833/2017 Erabakian egindako hutsak zuzentzea. Erabaki horrek ebatzi egin zuen abere-arrazak, abere-osasuna eta abere-ekoizpena hobetzeko eta elikagai segurtasunean eta ekonomia kudeaketan ustiatzei aholkuak emateko zerbitzua eskaintzeko eta Santiago eguneko azokan parte hartzeko kudeaketa programetarako abere-laguntzetarako 2017ko deialdia.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 102/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Hasierako onarpena ematea Gorbeia parke natural eta kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko II. Planaren (EKAP) agiriari eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiriari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 103/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Behin betiko onarpena ematea Gorbeia parke natural eta kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko II. Planaren (EKAP) agiriari eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiriari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 104/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Iruña Okako Ur Partzuergoaren estatutuak aldatzeko 2017ko abenduaren 31n haren batzar orokorrak hartutako erabakia berrestea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 105/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onartzea Bikuñako (Araba) 150 m³-ko andel erregulatzailerri berriaren proiektuari dagozkion obretarako epea luzatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 106/2018 Erabakia, otsailaren 27koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren zerbitzuen bitartez bildutako papera eta kartoia jasotzeko eta birziklatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espediente, gauzatzeko 4 urteko epearekin.